



## Tolosaldea eta Leitzaldea udan bisitatu dutenen kopurua mantendu egin da



Leitzako Martikoneko zubia. J.A.

**TURISMOA** ▶ Abuztuan igo egin da Tolosaldean, eta Leitzaldean, berriz, jaitsi egin da zertxobait

**EGURALDIA** ▶ Bai igotzeko bai eta jaisteko ere, eragin zuzena izan du bi eskualdeetan ▶ 3



### Albizturko eta Urkizuko inguruak ezagutzeko, bi ibilbide mendian barna

**TOLOSALDEA** ▶ Albizturko ibilbidea 9,5 kilometrokoa da, eta 3 ordutan egin daiteke; Urkizukoak, berriz, 11 kilometro ditu, eta 3 ordu inguru behar dira burutzeko. Zailtasun maila ertainekoak dira biak ere. Ibilbide hauen bidez ikuspegi ederrez gozatzeko aukera dago. Irudian, Urkizu auzoko ikuspegia. **ESTI EZEIZA** ▶ 6

**LEITZA** ▶

### III. Pilota Txapelketa abiarazi dute

96 pilotari lehiatuko  
dira Amazabalen ▶ 7

**TOLOSALDEA** ▶

### Irailean ere herriz herri, festaz festa

Hainbat herritan  
jaiak hastear dira ▶ 4-5

hitza  
argazki  
lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

**ARGAZKIAK NORA BIDALI**

- ▶ P. elektronikoa: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)
  - ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
  - Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri
- OINARRIAK:** [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

Sari  
nagusia

Mendexa-Lekeitiko  
**VILLA ITSASO** hotelean  
bi pertsonentzako  
asteburua.



2. saria

TalasoTerapia  
**Zelai**  
ZUMAI A

Zumaiako **TALASOZELAI**  
tarasoterapia zentroan  
bi pertsonentzako zirkuitua.

3. saria

Tolosako **DENAK** tabernan  
lau pertsonentzako afaria.



ZOKRETA  
APARTAK



**PARTE-HARTZAILE  
ETA BOTOEMAILE**  
guztien artean HITZAren  
motxila eta mendiko  
gerriko  
poltsa  
zozkatuko  
dira



## TOLOSA ▶ MUSIKA

# Reincidentes entzungai, Bonberenean

Igande honetan, 22:00etan, beraien azken diskoa aurkeztuko dute

## ESTI EZEIZA

Igande honetan, hau da, hilaren 9an, Reincidentes taldea izango da entzungai Bonberenean. Kontzertua gaueko 20:00etan hasiko da eta rock doinuak nagusituko dira ondorengo orduetan. Fernando, Barea, Finito de Badajoz eta Manuelek osatzen dute Reincidentes taldea.

Bi hamarkada inguru igaro dira talde andaluziarrek bere lehen diskoa argitaratu zuenetik. Beraien abestietan gizarte-

aren arazoei buruzko kritikak egiten dituzte. Hala, 20 urte hauetan, belaunaldi ezberdinetako gazteentzat eredu izatea lortu dute. Ezagunak dira Euskal Herriko gazte gehientzat beraien abesti batzuk: *Vicio, Carmen, Ai Dolores*, eta *Un dia mas*, esaterako.

## Azken lana aurkeztuz

Sevillatik (Espainia) datorren talde honek bere azken lana *El comercio del dolor* izeneko aurkeztuko du igandeko kon-



Reincidentes taldea kontzertuetako batean. HITZA

zertuan. Azken diskoa Reincidentesen 13. lana da. Argitalpen honetan ere, eguneroko bizitzako arazoez hitz egiten dute. Honekin, entzuleei, munduan ematen diren injustiziei aurre egiteko deia luzatzen diete. Azken lan hau, diskoak kanturik esanguratsuenak hasten du eta diskoari izena ematen dio. Kantu honetan, martxoaren 11ko erasoaren ondoren sortutako egoeraren

inguruko kritikak egiten dituzte. Abesti gehienak gogorrek eta pentsarazten dutenak badira ere jai giroko erritmoak ere entzun daitezke. Horren adibide da *Dios Salve a McFarland* izenekoak.

Hamalau kantuz osatutako disko honetan beste talde batzuetako musikariek ere hartu dute parte. Alde batetik, Boikot-ekoek eta baita Marea taldeko Kutxik.

## MUSIKA ▶

## Bihar abiatuko du ikasturteak Loatzo eskolak

Loatzo Musika Eskolak aste honetan hasiko du ikasturte berria. Zizurkil eta Ibarran bihar hasiko dituzte eskolak. Anoeta, Irura, Aduna, Altzo eta Alegian berriz, etzi.

## EUSKARA ▶

## AEKn izena emateko epea irekita dago jada

Tolosaldeko AEKK matrikula epea ireki du. Hilaren 28an amaituko da eta bulegoa 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Iaz bezala, Tolosaldeko herrietan euskara eskolak antolatu nahi dituzte eta interesa dutenek Andoaingo euskaltegira edo udalxeteara jo dezakete.

## TOLOSA ▶

## Zabalik da Aitzol Udal Euskaltegian izen-ematea

Aitzol Udal Euskaltegian izen-ematea irekita dago hilaren 21era arte. 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara egin ahalko da. Euskalduntze, alfabetatze edota EGA prestatzeko ikastaroak eskainiko dituzte.

## VILLABONA ▶

## Altzari zaharrak ostegunetan jasoko dituzte

Hemendik aurrera altzariak astero jasoko dituzte ostegunetan. 20:00etatik aurrera asteazkenetan atera beharko dira zaborrontzi ondora.

## TOLOSA ▶ POLITIKA

## Azken atxiloketak salatuz

**Erredakzioa** ▶ Luis Iruretagoiena *Suniren* atxiloketa salatzen manifestazioa egin zuten herenegun Tolosan. 200 lagun inguru elkartu eta herriko kaleetan barna ibili ziren. *Errepresioa ez da bidea, demokrazia Euskal Herriarentzat* lelopean. Bestalde gaurko deialdia luzatu du Askatasunak, 11:00etan, epaitegiaren aurrean egingo den elkarretaratzean parte hartzeko. Izan ere, garai horretan epaituko dute *Suniren* atxiloketa salatzen egin behar zen manifestaziorako kartelak jartzen ari zen gaztea. A. IMAZ



### Higienezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

**Anoeta.** Harrizko baserrian 90m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Berritzeko.

**Betelu.** Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukaldia, bi bainugela, terraza eta altzariz hornitua. Egoera ezin hobean.

**Donostia.** Mandasko duke kalean atiko polita salgai. Logela bakarrekoa eta eraberritua.

**Ibarra.** Etxebizitza, 3 logela, sukaldia eta berogailua. Berokuntza eta igogailuarekin.

**Ibarra.** Bi logelako etxebizitza. Eraberritua.

**Irura.** Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.

**Tolosa.** San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta guztiz berritua.

**Tolosa.** Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m<sup>2</sup>.

**Tolosa.** Belate auzoan garaje ibiak, eraikitzen hasita.

**Tolosa.** Gernikako Arbolan, merkataritzarako lokala bi solairuarekin, bakoitzak 35 m<sup>2</sup>.

**Tolosa.** Zumalakarregi kalean. 1. solairuan eta 4. an, kanpora ematen duten bista honekin.

**Tolosa.** Berazubini, eraberrituriko etxebizitza, kanpoaldera, ikuspegi ederrak.

**Tolosa.** Bialaren ondoan eraberritutako etxebizitza salgai. Garaje zabalarekin.

**Tolosaldea.** Baserria 10.000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin, egoera onean.

**Orio.** Aita Lertxundi kalean etxebizitza. 78 m<sup>2</sup>, kanpoaldera, oso egoera onean.

TURISMOA ▶

# Bisitari kopurua mantendu da

Tolosaldean iazko bisitari kopuru antzekoa izan da udan; Leitzaldean, berriz, zertxobait beherantz egin du

IÑIGO TERRADILLOS

Udako oporraldian Balear eta Kanariar Uharteak, Afrika, Grezia, Korsika eta Kroazia bisitatu dituzte eskualdeko herritar gehienek. Beste lurralde batzuk ezagutzera joaten garen bezala, asko eta asko izan ohi dira udan bai Tolosaldera bai eta Leitzaldera etortzen direnak, eta hala izan da uda honetan, baina, hori bai, bi eskualdeetako turismo bulegoetatik adierazi duten bezala iazko datuekin alderatuz gero, «bisitarien kopurua mantendu edota zertxobait jaitsi egin da».

Tolosaldeari dagokionez, aurtengo udan pasa den urteko bisitari kopuruaren antzekoa izan da. Esaterako, abuztuan, 1.615 izan dira Tolosaldea Tour turismo bulegora informazio eske gerturatu direnak, iaz baino 15 gehiago. Beheranzko joerarekin hasi zen bisitarien kopurua ekainean eta baita uztailean ere, baina abuztuan izan zen gorakadaren eraginez, orotara kopuru hori mantentzea lortu ahal izan da.

«Bai Gorrotxategi museoa bai eta Aranburu jauregiak eragina izan dute igoera horretan, bisitari ugari etorri baitzaizkigu bi leku hauengatik galdetuz», diote turismo bulegotik. Horretaz gain, Tolosaldeko sukaldaritzak ere bisitari ugari erakarri du, eta jende ugari hurbildu da bertako berezitasunak dastatzera, bai babarrunak, bai txuletak bai eta bertako gozoak. Bestalde, Tolosaldeko ostatueta ere ekaina eta uztaila uste baino gutxiago bete arren, abuztuan okupazio maila oso ona izan dute.

## Leitzaldean bisitari gutxiago

Plazaola Partzuergo Turistikoko bulegoan azaldu dutenez, uztailean iazko datuak mantendu zituzten arren, abuztuan bisitari gutxiago izan dituzte; «abuztuan 3.482 bisitari izan dira turismo bulegoan, iaz baino %10 gutxiago, eta uztailean, berriz, %1 gutxiago izan genituen». Jaitsiera hori aurtengo udan egin duen eguraldiaren eraginez izan daitekeela uste dute turismo bulegoan.



Tolosako Alde Zaharra bisitatzen dute eskualdera etortzen diren gehienek. ESTI EZEIZA

YOLANDA DE CARLOS ▶ PLAZAOLAKO BULEGOKO LANGILEA

## «Eguraldiak eragin zuzena izan du bisitari kopurua jaistearekin»

Plazaola Partzuergo Turistikoko bulegoko langilea da Yolanda de Carlos (Leitza, 1977).

### Pasa den urtean baino bisitari gutxiago izan dituzue, beraz.

Bai, hala da. Uztailean bisitari kopuru ia berdina izan badugu ere, abuztuan jaitsi egin da, %10a, hain zuzen.

### Zein izan daiteke arrazoiak?

Gure ustez uda honetan egin duen eguraldiak eragin zuzena izan du. Eta, agian, lehen baino gutxiago joaten dela jendea kanpora oporretan ere izan daiteke, izan ere, gero eta zailtasun handiagoak ditu jendeak, hipotekagatik-eta.

### Orohar, zein motatako bisitariak izaten dituzue?

Normalean gugana etortzen direnak familiak izaten dira: 30

eta 50 urte arteko bikoteak euren seme-alabekin, jatorriari dagokionez, desberdinu egin behar da udan etortzen direnen eta urtean zehar etortzen direnen artean; udan, Bartzelona, Madril eta Valentziatik jende ugari etortzen da, eta urtean zehar, berriz, Nafarroa eta Gipuzkoakoak izaten dira bisitari gehienak, eta baita Bizkaikoak ere.

### Nola izaten dute Plazaolaren berri?

Web orriaren bidez ezagutzen dute askok. Bestela, leku askotan dugu hedatuta Plazaolari buruzko informazioa.

### Askok errepikatzen al dute?

Bai, Kataluniatik etorritakoek, esaterako, ohitura handia dute errepikatzeko. ◀

ALAITZ MENDIZABAL ▶ TOLOSALDEA TOUR BULEGOKO LANGILEA

## «Udan egin duen eguraldiarengatik bisitari gehiago etorri dira»

Tolosaldea Tour Turismo bulegoko langilea da Alaitz Mendizabal (Tolosa, 1977).

### Pasa den urteko bisitari kopuru antzekoa izan da Tolosaldean.

Bai. Ekaineko eta uztaileko datuak begiratuta bazirudien aurretik gutxiago izango genituela, baina azkenean abuztuan bisitari asko izan ditugu, eta azkenean datu guztiak batura pasa den urtekoen antzekoak direla esan behar da.

### Ekainean eta uztailean gutxiago, eta abuztuan, berriz, gehiago. Zergatik?

Gure ustez, eguraldiarengatik izan da. Kalte egin baino mesede egiten digula esan daiteke, izan ere, Donostiara joaten diren bisitari askok jotzen dute gugana eguraldiak asko laguntzen ez duela ikusita.

### Zerk erakarrita etortzen dira?

Askok ostatua eskualdean hartzen dute, eta gero bertatik mugitzen dira. Tolosako Alde Zaharra ezagutu nahi izaten dute gehienek, eta beste askok eskualdeko herri txikiak irabazten dute. Gure jakiak ere probatu nahi izaten dituzte.

### Zein motatako bisitariak izaten dira?

Kataluniakoak dira gehienak, eta baita Valentzia, Madril eta Frantziakoak ere. 20 urtetik 50 urtera artekoak izaten dira, eta normalean bikoteak euren seme-alabekin. ◀

h

tolosaldeko eta leitzaldeko

# hitza

h

## Praktikak HITZAn

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa  
lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
Araba etorbidea, 5 behea- atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

JAIAK ▶

EGITARRIAK ▶

**ALKIZA ETZI**  
16:00. Haur Jolasak festei hasiera emanaz.  
21:00. Earmiketa.  
**Ondoren**, Lasket taldearen eskutik erromeria.  
**HILAK 8, LARUNBATA**  
10:30. Herriko umeentzako birindulari lasterketa eta toka bospelata.  
12:00. Meza Nagusia.  
14:00. Jubilatuen bazkaria Olsamendi jaletean.  
**Ondoren**, Beteranoen arteko XVI. Pilota Txapelketaren finalak.  
16:00. Piboi tiraketa Erniope elkarteak antolatutako bazkide eta herritarrentzat.  
23:00. Herri kirol saioa auzokarekin eta harrizsozaleekin.  
**Ondoren**, Saioa eta Alabiaren eskutik erromeria eta atseñenadrian gau jolasak.

**HILAK 9, IGANDEA**  
10:00. Meza nagusia.  
10:15. Piboi partidak: Gazteen Arteko XVII. Txapelketa finalak.  
16:00. Kuki mehartzarien jolasak frontoian.  
17:00. Asto lasterketa herrikoia mozorrozuta.  
**Ondoren**, Gorriti bere animaliekin.  
**Gausean**, Ansorregi eta Larrañagarekin erromeria.

**HILAK 14, OSTIRALA (MOZORROEN EGUNA)**  
17:00. Gazteen arteko pilota partiduak.  
**Ondoren**, Toka bospelata herrikoia.  
23:00. Bertsolari jaialdia: S. Lizaso, A.M. Peñagarikano, A. Egaito, M. Lujanbio, J.M. Irujo eta A. Arzallus bertsolariekin. Gaijarzailea: Unai Elizasu.  
**Ondoren**, Agurtzane eta Ion Elustondorekin erromeria.  
**HILAK 15, LARUNBATA**  
18:00. Herri kirol saioa herriko gazteen artean, Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalaren oroinenez.  
**Ondoren**, Sagardo dastaketa izango da denentzat.  
20:30. Herri afaria Ostatu jaletean.  
23:00. Dark Avenue, Izeba Pilaren lobak eta Nunbat taldeen kontzertua.

**BEDAIO ETZI**  
20:00. Jaini hasiera suziri eta kargu botzeekin.  
20:05. Patata tortilla lehiaketa.  
Jai baztordeak patata, arratzak eta oioa banatuko ditu. Beste osagaiak eta sua bakotzak eraman behariko dituzte.  
20:30. Sagardo dastaketa.  
21:00. Zahag ardoa.  
23:00. Erromeria Imruntz eta Bolokarekin.  
04:00. Tzololotata.



Pirinx eta Porrotx pailazoak Zuzurkilen gaur egongo dira. «1»

**HILAK 8, LARUNBATA (JAMA BIRJINAREN EGUNA)**  
11:00. Meza Nagusia.  
**Ondoren**, Hamaitaketa.  
12:00. 2007 Eskuko Pilota Txapelketa Handia.  
16:30. Umeentzako jolasak: jokuak, mlabararak, buruhandiak.  
21:00. Herri afaria, dultzainero taldeak alaiturik. Zoketa berria egingo da.  
00:00. Erromeria Kupela taldearekin ordu biakiko arte.  
04:30. Indarrak hartzeko baratsun zopa.  
**HILAK 9, IGANDEA**  
11:00. Meza nagusia.

**Ondoren**, Puzgarriak eta zezen mekanika, belduladarekin.  
23:00. Goizaldera arte Jaisko Band musika taldearen emanaldia.  
**HILAK 8, LARUNBATA (AMA BIRJINAREN EGUNA)**  
11:00. Meza nagusia.  
12:00. Hamaitaketa Kontzeju tabernan.  
17:30. Marsel magoa herriko plazan.  
18:30. Herri kirolak Betagarri kirol taldearen eskutik.  
00:00. Abito Drosajeta.

**HILAK 9, IGANDEA**  
11:30. Meza nagusia.  
12:30. Sagardo botzeak edateko aukera, pintxo eta guzti, herriko plazan. Dastaketa dagoen bitartean Irinkola izango da Itzeder eta Josebarreren eskutik.  
13:15. Dantzarak Udaberri dantza taldearen eskutik.  
13:30. Bedaioko berrindulari igogera (federatu gabekoak).  
18:00. Herri kirol jaialdia: Ainar Irigoinen harrizsozalea eta Urki, Mendizabal eta Aerbe auzokarekin, besteak beste.  
**Ondoren**, Bedaioko Irigurata eta Arratxako jota.  
20:00. Preso eta iheslariaren aldeko herri kirol saioa, ekitaldia eta ondoren afaria.  
21:00. Afaria Artubi elkartean.  
**ELDUAIN ETZI**  
17:00. Jaiet hasiera emateko udaltee sarrerarik bupinazioa.

21:00. Zahag ardoa auzoko lokalean.  
23:00. Kontzertua Lauroba eta In The Kibben taldeen eskutik.  
**HILAK 8, LARUNBATA**  
11:00. Ume jolasak eta buruhandiak.  
12:00. Toka bospelata.  
13:00. Bonberenea baranga.  
14:00. Bertso bazkaria Sputnik plazan Hamaita Bertulerekin.  
15:00. Toka bospelata.  
16:00. Izaskun auzoko Mus Txapelketa 2007.  
19:00. Sagardo dastaketa pintxoekin.  
21:00. Zahag ardoa Sputnik plazan.  
23:00. Kontzertua Despervicio eta talde sorpresarekin.

**HILAK 9, IGANDEA**  
09:30. Diana Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.  
**LIZARTZA ETZI**  
10:00. Pilota desafioa Ametsela eta Lizartzen artean: Jaka-Zubeldia/Goitia-Gaurralde; Olabea-Martinez/Artoza-Garmendia eta Elurbe-Zelaia/Beloki-Haritz bikoteak ariko dira.  
20:30. Kalejira Karobuloko taldea eta buruhandiez alaiturik.  
21:30. Herri afaria plazan.  
00:00. Tzupinazioa herriko lau

presoen omenez eta dantzarada.  
**Ondoren**, Kloraita eta Josta taldeen kontzertua.  
**HILAK 8, LARUNBATA**  
10:00. Goiz deia Lizardi bustulan taldearekin.  
11:00. Meza nagusia.  
12:00. Helduentzako hamaitaketa elkartean.  
**Ondoren**, Iriri-bertso poltoa Jokin Sorzabal eta Amaia Agirreekin.  
14:00. Bazkari herrikoia Zuzurkigo abeslariarekin.  
**Atseñenadrian**, Sokatira. Ospela Euteraren aurka.  
19:00. Sagardo dastaketa. Banda Batok eta DJ Bull-ekin.  
**Atseñenadrian**, Sokatira. Ospela Euteraren aurka.

**HILAK 9, IGANDEA**  
10:00. Goz deia, herriko gaiterekin.  
11:30. Pilota partiduak: Urzi-Imanol/Hernani-Garriotz; Gaitoko/Bai/ Jon Jarament aurka. Pala Partidua: Patrizia-Arriola/Goatz-Nagore bikotearen aurka.  
13:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia.  
17:00. Ume jolasak, beldulotata eta sokatira gizonak emakumeen aurka.  
18:00. Dantza soka.  
19:00. Herri kirolak.

**ZUZURKIL GAIUR**  
16:30. Haurren bupinazioa Abulondio Kultur Etxetik.  
17:00. Pirinx eta Porrotx, Jose Arregi plazan.  
20:00. Tzupinazio nagusia, Abulondio Kultur Etxetik.  
**Ondoren**, Kanti Kale. Herritarren herriak euskal kantuz alaituko dute.  
21:30. Koadrilien afaria Jose Arregi plazan, Egan Tabernak eskainita.  
23:00. Egan taldearen emanaldia.  
**BIHAR**  
11:00. Haurrentzat parkea Jose Arregi plazan; zezen mekanika, puzgarriak eta ziklomoztritate zirkuitoa.  
17:00. Buruhandiak.  
17:30. Haurrentzako jokuak: murrak margotzea, jokuak eta hauren dantza erakusketak.  
19:00. Unsain Anaiak, iritzi filmak.  
00:00. Kontzertua: Asier Serrano eta Aparthel taldeekin.  
**Ondoren**, Karaokea.

**ETZI**  
11:00. Txan Magoa.  
12:30. Buruhandiak.  
12:30. Jubilatuek antolatutako jolasak adin guztientzat: toka eta igela.  
14:00. Jubilatuen bazkaria.  
17:30. Zezen biakiko eta pontiak

izango dira haurrentzat Aurrera plazan.  
18:30. Caricatura: Ior ezazu zure karrikatura nahi duzun eskutian.  
19:30. Kizketa kale antzerkia Hartzmuga Teatrotaldea taldearekin.  
00:00. Kontzertua: Skamaben, Esne Beltza eta Jotas Semustiani Band (Derunbaelleggae).  
**IRAILAK 8, LARUNBATA**  
11:30. Lore lehiaketa Jose Arregi plazan. Lehiaketa parte artuko duten loreak 11:00etarako eraman behariko dira Jose Arregi plazara.  
12:00. Sardiak eta sagardo dastaketa Urkamendi Elkartearen eskutik.  
14:00. Herri bazkaria.  
17:00. Bilsan arteko pentalloa. Koadriliek bost jokotan parte hartu behariko dira.  
19:30. Asto karrera.

**IRAILAK 9, IGANDEA**  
09:30. Diana, Loatzo Musika Eskolako bustulari taldearekin.  
11:00. Zuzurkigo VII. Kros Herrikoia eta hamaitaketa.  
12:30. Meza Nagusia.  
17:30. Ardi bakuraren erakusketak burualde basterri inguruan.  
18:30. Halterofilia XVI. Elbarrena Trofeoa Jose Arregi plazan.  
20:00. Gu ta gutarrak, bertso berriak eta lagun zaharrak, Unai Iurruga, Igor Elorza, Josu Zabala, Aitor Rubio eta Xanpe.



**Eusko! Herriko ondoen gida liburua**

Aranzadi Zientzia Elkartaren Eskutik Herriko 110 pertxikito eguztuenen zerrenda elkarri dago Berrin Herria. Pertxikitoentzat, gida egin behar da, pertxikitoak ez diren pertxikitoak, eta hiri guretatik teknikak, inbentarioak...

**Euskal Herri osoko 110 pertxikito eguztuenak**

- 110 pertxikitoak berrinarenaren inbentarioa
- habitat eta jurgintza inbentarioa
- 110 pertxikitoen murrak
- Pertxikitoak egiteko 8 Berrin-azterak
- 110 pertxikitoen jurgintza inbentarioa
- 110 pertxikitoak berrinarenaren inbentarioa

**Irailak 8, larunbata kartilla + 1. kupua berriekin**

# Iraillean ere jai

Abuztua paroa izaten da jaiet dagokionez eskualdean, baina datozen egunetan ere hainbat herritan izango da festa: Alkizan, Bedaion, Elduainean, Tolosako Izaskun auzoan, Lizartzan eta Zuzurkilen

ERREDAKZIOA



Aurreko hilean, Albiturko jaietan, trikipotea egin zuten herriko trikitilariek alaiturik. «1»

runbatean izango da finala, Etxeberriko Karin eta Jexuz, Beasaineko Ione Marit eta Birtarteko Jonak osatutako bikotearen aurka. Guztira hamasei bikoteek hartu dute parte txapelketan.

Elduain dagokionez igandean sagardo eta pintxo dastaketa, herri kirol jokuak haurrentzat eta Udaberri dantza taldearen saioak izango dituzte. Bestalde, autobus egongo da larunbat gausean. Tolosatik 23:30ean aterako da eta Elduainetik Tolosara 04:00etan abiatuko da, ohiko lekuekin. Lizartzan jai baztordeak antolatuta dituzte. Udalaren partez hartzerik gabe. Ekitaldi dagokionez, ostiralean ametselarekin pilota desafioa izango dute lizartzariek. Alpatzeko ere ostualde herri afaria, la-



Ibarra festetan, abuztuan, hainbat haur margotuta pailazoen emanaldiaren zain. «1»

runbateko bazkari herrikoia eta igandean egingo dituzten herritarren arteko jolasak.

**Izaskun auzoan jaiak berriro**  
Tolosako Izaskun auzoko jaiak berriro antolatuko dituzte aurten. «Auzoko gazteen ilusioak eta lan egiteko gogoak jai hauen

berreskuratzea ahalbidetu du eta egitarau xume zain erakargarri batekin auzo alaitu nahi du antolatzaileek. Aurtengo jaien helburua, «auzoko nahiz kanpoko jendearen partehartzearekin batera, auzoko jaietan izaten zen festa herrikoien izpiritu berripizta eta, azaldu dute.

Bi ekitaldi nabarmendu dituzte antolatzaileek, biak larunbatean egingo direnak. Aida batetik, bertso bazkaria. Hamaita Bertute eta Bonberenea txarangarekin. Txartelak Denak tabernan. Dientzi jaiari dantza eta Ogi Berrin erosi dazteke. Bestetik, arratsaldeko sagardo eta pintxo dastaketa.

## MENDI IBILALDIAK (III) ▶

## NEREA URBIZU

**E**guzkiak txoko batzuk epelduko ditu oraindik ere Tolosaldean. Hegoaizeko egun horiek baliatu eta Tolosaldeko mendialdea ezagutzeko aukerak udazkenean ere izango direlakoan, Alegialdeko iparraldeko bi ibilbide dira kasu honetan proposatutakoak: batetik, Tolosatik Urkizurakoa, eta bestetik, Albizturkik Ortzal alderakoa. Paraje berdeak edo harrobia dira begiek jasoko dutenen artean deigarrienetarikoa.

Denboraz berdintsuak dira hiru ordu inguru behar baitira biak burutzeko, baina Albizturkoak gorabehera handiagoak ditu. Biak zailtasun aldetik antzekoak dira.

Urkizura igotzeak merezi du, Tolosako berdegune ederrak gordetzen baititu oraindik, eta bertako bistek merezi dute. San Anton harrobia Albizturkik ikusten da besteen artean, eta harrigarria da duen itxura: ez da Urkizutik ikusten den parajea, inolaz ere.

## Albizturko ibilbidea

Ibilbidea plazan hasten da. Aurrena Ugarte jatetxeraino heldu behar da; hor, Kale Nagusia utzi eta ezkererantz dagoen errepide estu batetik abiatuko gara. Pagolarenara iritsi eta gora eginez, San Anton harrobia aurrean dago. Urrutume baserria pasa eta gero, basabidean sartuko gara; ipar-mendebaldera egingo dugu Elutsetarantz, eta, aurrerago, hasierako bidea berreskuratuko dugu, hau da, galtzada.

Eki aldera bira egin eta Olateaga Behekoa eta Olateaga baserriak topatuko ditugu. Olateagan, gora doan bidea hartu eta, 250 bat metro egin ondoren eta Arantzabe baserrira iritsi baino lehen, utzi egingo dugu, mendiko bidetik jarraitzeko. Albiztur Urkizu auzoarekin lotzen duen bidea gurutzatu eta aurrean dugun bidetik igoko gara, Intzaurre baserriraino. Ezkerrera egin eta Mendikute inguraturako dugu.



Albizturgo ibilbidetik San Anton harrobia eta bere inguruak ikus daitezke. ESTI EZEIZA

## Gustu guztietarako ikuspegiak, gelditzen diren egun epeletarako

Albizturko ibilaldian San Anton harrobia ikus daiteke eta Urkizukoan, berriz, berdeguneak nagusitzen dira



Bide honetatik jarraituz Tolosara jaitsi daiteke. E. EZEIZA

Metro batzuk aurrerago, etxe txiki bat dago eta, ondoren, pista berri bat. Basoaren irteeran, Gorostiko borda izango dugu. Metalezko langa batera iristean, pista utzi, errekaraino jaitsi eta bidexka bat hartuko dugu, goraka, beste borda bateraino eramango gaituen bidexka bat, hain zuzen. Borda horretan, ezkerretara, metalezko ate bat zeharkatu eta, errekaraino paraleloan, altuera galtzen hasiko gara.

Larrarte, Txorrosti eta Atxisaeta baserriak zeharkatu behar dira, eta Atxisaeta baserria azpialdetik inguratzen duen bidea hartuko dugu, jaisteko. Zementuzko bidera eramango gaituen atea zeharkatu eta eskileretatik jaitsiko gara. Hemendik aurrera jarraituz asfaltotzko bidera aterako gara plaza joateko aukera izanik.

## Urkizuko ibilbidea

Zuloaga Txiki aterpetxetik ekingo diogu ibilbideari. Hortik Hernialdeko errepidera jaitsiko gara, Zuloaga errekan gora egin eta lehen zubira iristeko; zubia zeharkatu eta errekan gora jarraituko dugu, baina oraingoan eskuineko aldeetik. Hiru bat kilometro egin ondoren, erreka zeharkatu eta malda gogor xamar batetik gora pago artetik doan bide bati ekingo dugu, Malaka baserriaren goitik doan pista bat aurkitu arte.

Hor Urkizurako ohiko bidea hartuko dugu ezkerretara, San Zipirio ermitaren hondakinak ikus daitezke. Ermita utzirik Urkizura heltzen da. Itzultzeko ere bide bera egingo dugu, baina berehala hori utzi eta beste bat hartuko dugu, Damaiturriara jaisten dena, alegia.

## Lizardiren monumentura

Hortik abiatuz, Xabier Lizardi poetaren omenezko monumentua ikus daiteke. Gero, behar bide hartzeko Mutitegi baserrietaraino iristen da. Hortik, hau da, Montezkue ingurutik, San Esteban auzora iristen da zuzenean.

## IBILBIDEAK ▶

## ALBIZTURKOA

**Distantzia.** 9,5 kilometro.  
**Iraupena.** 3 ordu eskas.  
**Gorabehera.** 500 metrokoa.  
**Zailtasuna.** Ertaina.

## URKIZUKOA

**Distantzia.** 11 kilometro.  
**Iraupena.** 3 ordu.  
**Gorabehera.** 418 metrokoa.  
**Zailtasuna.** Ertaina.

▶ Xabier Lizardi poetari egindako monumentua ikus daiteke ibilbide honetan.

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ PILOTA

# Leitzako III. Pilota Txapelketa hasi da, 96 pilotarirekin

Euskal Herriko hainbat eskualdetako pilotariak lehiatuko dira iraileko 4 asteburutan zehar, Amazabal pilotalekuan



Joan den asteburuan hasi zen Leitzako Txapelketa eta 12 norgehiagoka jokatu zituzten. HITZA

NAIARA GARZIA

Joan den ostiralean hasi zen Leitzako III. Txapelketa eta hirugarren urtez Leitzako Amazabal pilotalekuan 4 asteburutan zehar Euskal Herriko hainbat pilotari lehiatuko dira.

Orotara 96 pilotarik hartuko dute parte 6 maila ezberdinetan (benjamin, hasiberri, haur-kategoria, kadete, gazte eta seniorrak) eta maila bakoitzean 8 bikote egonen dira. Txapelketa Aurrera Pilota Eskolak antolatuta

du, Aurreraren, Nafarroako Federazioaren, Leitzako Udalarren eta Goiko enpresaren laguntzarekin. Pakito Sagastibeltza pilota eskolako arduraduna da: «Final-laurdenak joan den asteburuan hasi ziren eta datorren asteburuan amaituko dira. Finalerdiak hilaren 14ean eta 15ean jokatuko dira, eta hilaren 23an, finala». Ostiraletan 19:30etik aurrera 3 partida jokatuko dituzte, kadete, gazte eta seniorrek. Larunbatetan, 09:30etik aurrera 6 partida,

benjamin, hasiberri eta haur-kategorikoek eta igandean beste 3, 10:00etatik aurrera, kadete, gazte eta seniorrek.

## Hainbat lekutako pilotariak

96 pilotari hauetatik 16 pilota eskolakoak dira. «Benjaminak 2, hasiberriak 5, haur-kategorikoak 3, kadeteak 2, gazteak 2 eta seniorrak beste 2», azaldu du Sagastibeltzak. «Gainerakoak Euskal Herri osokoak dira: Nafarroakoak, Bizkaiko-

ak, Arabakoak eta Gipuzkoakoak. Gutxienak arabarrak dira, eta nafarroakoak eta gero gehienak gipuzkoarrak dira. Errioxako zenbait pilotari ere badaude».

Txapelketa hau berri xamarra izan arren, antolatzaileek beti maila ona eman nahi izan du diotela adierazi du Sagastibeltzak. «Kategoria guztietan ahal den mailarik altuena ekartzen saiatzen gara, momentu honetan maila bakoitzean dauden pilotaririk hoberenak, alegia». Denboraldi honetan estreinatu diren batzordearen kideentzat txapelketa hau antolatzen duten lehenengo aldia da. «Aurreko bi edizioetan gu ez ginen, lehendabiziko aldia da batzorde berri honetako kideok txapelketa antolatzen dugula, baina aurrekoek bideratuta utzi ziguten. Beste bi txapelketak oso maila altukoak izan ziren eta oso ongi atera ziren, eta nik uste hirugarren honen ere bide beretik goazela».

Txapelketaren izaeraren inguruan ere mintzatu da Pakito Sagastibeltza. «Hau txapelketa pribatua da. Herri Artekoarekin eta horrelakoekin alderatuz ofizialtasunik ez du, Leitzako herriak antolatzen duen txapelketa bat da».

## Jendearen harrera

Publikoari dagokionez txapelketaren lehenengo asteburuan frontoira jende gehiegi ez zela azaldu adierazi du Sagastibeltzak. «Propagandaz nahiko eskas ibili ginen, irratirik ez baitzegoen ezta HIRZarik ere, eta nahiko jende gutxi joan zen. Hurrengo asteburuan nahiz eta propaganda egin jendea joanen da baina ez da hainbeste izanen. Finalurrekoetan jende gehiago izanen da eta finalean, hilaren 23an, ziur frontoia betekoa dela. Eta bete behar genuke, nola edo hala».

Txapelketa, urtero bezala, kanporaketa bidez jokatu dute. «Finalean garaikurrak, txapelak eta dirua banatuko ditugu, kadete, gazte eta seniorretan».

## iragarki laburrak ▶

### LANA

Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da eteko lanetarako eta 2 ume zaintzeko. 656 76 64 39/943 67 54 89.

### GALDUTAKOAK

Txakurra. Espaner Breton arrazako txakur txuri-marroia topatu dute Gaztelun. 1-3 urte bitartekoa. Txiparik gabe. 665 71 21 88.

GIZARTEA ▶

## Plazaolako bi martxatan izena emateko epea zabalik

Mendi Txirrundulaz V. Martxa eta II. Maratoi Erdia hilaren 16an izango dira

N. GARZIA

Hilaren 16an Plazaolaz Barna Mendi Txirrundulaz V. Martxa eta II. Maratoi Erdia izango dira Plazaola Partzuegoak antolatuta. Bai batean bai bestean parte hartzeko Plazaola turismo bulegoan izena eman behar da edo beraien webgunean, hilaren 12a baino lehen.

Mendi martxarako 3 ibilbide proposatu dituzte eta alde zaurerik izena ematen dutenentzat txirrundulaz garraiatzeko garraio zerbitzua jarriko dute. Maratoi Erdian, aldiz, parte-hartzea 200 pertsonentzat mugatu dute.

LEITZA ▶

## Asteburuan zaldiekin ikasteko aukera

N. GARZIA

Asteburu honetan Aurrera Perra Zaldi Taldeak antolatuta zaldiak hezteko ikastaroa egingen dute Inguruarten. Western era erakustez gain Ameriketako ikasitako arrantxoaren lanak ere ikasgai izanen dituzte. Irakaslea Goikili izanen da eta izena emateko ondorengo zenbakira deitu behar da: 696 10 15 64. Ikaslaroak 20 euro balio ditu, bazkideentzat 15.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Zure eskualdeko berriren bat argitaratu nahi baduzu sar zaitz gure webguneko Zeuk idatzi atalean. Informazioa jaso ondoren kazetaria zurekin harremanetan jarri ahal izateko daturen bat uztea komeni da, telefono bitartekoa. Txiparik gabe. 665 71 21 88.

## LEITZAKO III. TXAPELKETA ▶ FINAL-LAURDENAK

Asteburu honetan ordu berean beste final-laurdenak jokatu dituzte. Hauek joan den asteburuko emaitzak dira.

### ABUZTUAK 31, OSTIRALA

1. partida, kadeteak. Apeztekoa-Bolinaga 22, Madariaga-Aizpuru 10.
2. partida, gazteak. Idoate-Nubla 22, Juanenea-Perez 17.
3. partida, nagusiak. Larrañaga-Iriarte 10, Gonzalez-Baez I.a 22. ▶ 19:30ean.

### IRAILAK 1, LARUNBATA

1. partida, hasiberriak. Iribarria-Larunbe 10, Iparragirre-Tolosa 18.
2. partida, benjaminak. Bakaikoa-Eskudero 18, Saenz-Barriola 15.
3. partida, hasiberriak. Garai-Gil 18.
4. partida, benjaminak. Espinal-Sagastibeltza 8.
5. partida, nagusiak. Zaldueño-Iturbe 14, Mariezkurrena-Zabala 18.
6. partida, haur-kategoria. Arratibel-Jaunarena 18, Gabilondo-Idoate 7.

### 6. partida, haur-kategoria.

Lasa-Gaztañaga 18, Maia-Aroena 4. ▶ 09:30ean.

### IRAILAK 2, IGANDEA

1. partida, kadeteak. Mendinueta-Arzelus 15, Jauregi-Pazos 22.
2. partida, gazteak. Alduntzin-Yeregi 22, Arrese-Jaka 12.
3. partida, nagusiak. Erroizenea-Bengoetxea 22, Andreu-Arraztoa 14. ▶ 10:00etan.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Berastegi.** Gaztainondo jubilatuen elkarteak Laguardiara irteera antolatuta du hilaren 12rako. 08:30ean abiatu, Santa Maria eliza eta beste hainbat txoko bisitatu, ardo dastaketa El Fabulista bodegan, bazkaria Marisa jatekian eta arratsaldea Logroñon. Izen-ematea, elkartearen bertan.

**Tolosa.** Harizpe jubilatuen elkarteak Arantzazura irteera antolatuta du irailaren 9rako, bertako Ama Birjinaren eguna. Itziarke eliza bisitatu eta Hostal Itziarren bazkaria izango da. Prezioa: 27 euro (ez bazkideek 30 euro). Izen-ematea, elkartearen bulego orduetan. Bestalde, oporraldia antolatuta du Benidormen irailaren 29tik urriaren 13ra bitarte. Bazkideek 455 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 461 euro.

**Tolosa.** Tolargi eta Tolosa Gasako egutegiako argazki lehiaketa antolatuta dute. Gaia Natura eta Tolosa da eta lanak paperean edo CDan aurkez daitezke bulegoetan. 500 onenak webgunean jarriko dituzte.

**Vilabona.** Pirinioetara irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkarteak hilaren 15 eta 16rako, Monte Perdido (3.355 m) igoz eta Goriz aterpean lo eginez. 60 euro. Izen-ematea, 649-717182 telefonoan 20:00etatik 22:00etara.

**ERAKUSKETA**

**Tolosa.** Iñaki Linazasororen argazkiak ikus daitezke Aranburu Jauregian. Zuri-beltzez dira eta Tolosa eta Euskal Herria dira gai nagusiak. Asteartetik larunbatera 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara eta igandeetan 10:00etatik 13:00etara bitarte.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Onenaren bila

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Seigarren edizioako lehen parte-hartzaileek bidali dituzte jada euren argazkiak Europatik; Portugalen eta Eslovenian izan dira



**NAZARÉ (PORTUGAL) ▶**

**Amaia Jauregi Colomo (Tolosa).**

Portugal aldera egin du txangoa aurten Amaia Jauregi tolosarrak. Leku zoragarriak ikusiko zituen ziurrenik eta argazki eder hau aukeratu du gure lehiaketan parte hartzeko. «Argazkia Portugaleko Nazaré herrian ateratakoa da, hain zuzen ere bertako portuan, faroa ikusten delarik txori bat pasatzen ari den bitartean», argitu du Amaiak.

**BLED LAKUA (ESLOVENIA) ▶**

**Xabier Lopez (Tolosa).**

Europara bidaiatu du Xabier Lopezek abuztuan. Berak azaldu digunez herrialde desberdinak bisitatu ditu bere lagunekin batera baina bertan ezagutu dituen txokoetatik Esloveniako Bled lakua azpimarratu nahi izan du. Hauxe azaldu digu, hain zuzen, lekuari buruz: «Bled lakura iristen zarenean ipuin batean sartzen zarela dirudi. Alpe Juliano izeneko mendien babesean, erdigunean, puntan gaztelu bat duen irlabatu bat duen laku zoragarri bat topatzen duzu, ur gardenekin eta paisaia berde batez inguratutik. Berezia benetan».



**AGURRAK ▶**



**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
agurren tarte

**URTE ASKOAN**

Zorionak Haimar. Lizartzako familia. Muxuak.